

2021

IKASTAROA



Zibersegurtasuna: gure ekintzen erantzukizuna
geure gain hartzeko erronka



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

IKASTAROA: **Zibersegurtasuna: gure ekintzen erantzukizuna geure gain hartzeko erronka**

Non: Bilbon, GEBren egoitza. Uriortu kalea, 11-behea

Noiz: maiatzaren 5ean, 12an eta 19an

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara

Hizkuntza: Gazteleraz

Leku-kopurua: 12 pertsona

Izena emateko epea: apirilaren 15etik 22ra

Izena ematea: www.gaztebehatokia.euskadi.eus

Zibersegurtasuna:
gure ekintzen
erantzukizuna
geure gain hartzeko
erronka



Helburu orokorra:

Mundu digitalean egungo arrisku eta mehatxu nagusiak zein diren ezagutzea eta horiei aurre egiteko moduaren eta giza faktoreak arrisku horietan duen funtsezko erantzukizunaren inguruan gogoeta egitea.

Helburuak:

- Bertaratuko direnek beraien aurka erabil daitezkeen **eraso-teknika desberdinei buruzko informazioa izatea eta ezagutzea**, funtsezkoa baita garaiz antzemateko eta etorkizuneko arazoak saihesteko.
- Gazteekin lan egiten dutenei **baliabide praktikoak ematea**, ikuspegi seguru batetik lagun egin diezaieten (erasoak garaiz antzemateko eta etorkizuneko arazoak saihesteko).
- Erabilera txar batek edo egungo arriskuak ez ezagutzeak ekar ditzakeen **balizko ondorioen berri izatea**.
- COVID-19ari loturiko zibermehatxuei buruzko **sentsibilizazioan arreta jartzea**.

Zibersegurtasuna:
gure ekintzen
erantzukizuna
geure gain hartzeko
erronka



Metodologia:

- **15 orduko ikastaroa; 5 orduko hiru saiotan emango da.** Eduki teorikoei buruzko lana, Interneten aurki daitezkeen baliabideen laguntzaz taxututakoa.
- Saioetan parte-hartzea izango da nagusi, eta horrekin batera, parte-hartzaileen arteko eztabaidari irekitako hausnarketa-tarteak ere sartuko dira, esperientzien bateratze-lanaz aberasteko asmoz.
- Nolanahi ere, errealitatetik hurbil dauden gertu-gertuko adibideak erabiliko dira une oro, ezagutzaren transferentzia ahalik eta errazena izan dadin.

Hartzaileak:

Gazteak lagundu edo haiekin lan egiten duten pertsonak lehentasuna izango dute (erakunde edo elkarteetan, administrazio publikoetan, enpresetan, ikastetxeetan, boluntarioran...) Honekin batera ere, izena ematearen ordena errespetatuko da.

- Gazteriaren arloko langileak (Gazte Informazioa, Udalak, Aldundiak, Gazte eta Aisialdirako Elkarteak, eta bestelako erakundeak).
- Gizarte hezitzaileak.
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako orientatzaileak.

Zibersegurtasuna:
gure ekintzen
erantzukizuna
geure gain hartzeko
erronka



Programa:

1. saioa:

- Zer da zibersegurtasuna? Nola ulertzen dugu zibersegurtasuna interkonektatutako mundu honetan?
- Zergatik da horren garrantzitsua balio etikoetan hezten jarraitzea gero eta zibernetikoagoa den mundu honetan?
- Giza faktorea segurtasun gorabeheren sorburu eta konponbide.
- Eraso-mota desberdinak. Horiek ezagutzen ikasten.

2. saioa:

- Nire datuak, nire altxorra. Nola babes ditzaket?
- Erabilera- eta pribatutasun-baldintzak. Ezagutzen ditugu erabiltzen ditugun gunen digitalen erabilera-baldintzak?
- Gazteentzako abantailak eta arriskuak: nola aprobetxatu sare sozialek eskaintzen dizkiguten baliabideak eta nola minimizatu arriskuak ahalik eta gehien.

3. saioa:

- Zer egin dezakegu? Jardunbide egokiak.
- Nabigazio segurua.
- Sare sozialak eta segurtasuna.
- Amaierako ondorioak.

Zibersegurtasuna:
gure ekintzen
erantzukizuna
geure gain hartzeko
erronka



Irakaslea:

Ane Martínez Recio. Internet eta tresna digitaletako aholkularia, prestakuntza, gaikuntza eta coaching teknologikoan trebatutako aditua Ezberdin-en, Digitalde-n eta Aiara Valley-n.

Antolatzen duen erakundea:

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA

Gazteria Zuzendaritza

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza

944031645 • gaztebehatokia@euskadi.eus

Zibersegurtasuna:
gure ekintzen
erantzukizuna
geure gain hartzeko
erronka

